

37/2013 foru araua Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa
17. artikuluko 1. eta 6.zatiak

(2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldiak)

1. Ibilgetu materialaren eta higiezinetakoko inbertsioen balio galera efektibotzat joko da hurrengo taulan ezarritako amortizazio koefizienteak aplikatzearen emaitza denean:

ONDARE ELEMENTUAK	URTEKO GEHIENEO KOEFIZIENTEA
Etxe gela eta bulegorako, merkataritzako erabilerarako edota zerbitzuetarako eraikinak	3
Industria erabilerarako eraikinak eta pabiloiak	5
Instalazioak	20
Industria erabilerarako makineria	20
Beste erabilera batzuetarako makinak	15
Itsasontziak eta aireontziak	10
Autobusak, kamioiak, furgonetak eta antzekoak	20
Turismo ibilgailuak	20
Moldeak, modeloak, trokelak eta matrizeak	33,33
Tresnak eta erremintak	33,33
Altzariak	15
Informatika ekipoa	33,33
Alokatzeko bideofilmak	50
Zehaztu gabeko beste elementu batzuk	10

6. Foru arau honen ondorioetarako, artikuluko honetan aipatutako ondare elementuak amortizatzeko gehieneko epealdia 15 urtekoa izango da, higiezinaren eta itsasontzi zein aireontzien kasuan izan ezik: higiezinarako 50 urteko epealdia egongo da eta itsasontzi eta aireontzietarako 25 urtekoa.

Zergadunek eskatu ahal izango dute amortizazio plan berezia onartu dadila, foru arau honetako 16. artikuluko 2. idatz zatiko b) letran araututa dauden horietarikoak, baldin eta, inguruabar ekonomiko edo teknikoengatik, beharrezkoa bada gehieneko amortizazio aldia idatz zati honetan ezarritakoa baino luzeagoa izatea. Aurkeztutako proposamenaren arabera zehaztuko da zergaldi bakoitzeko amortizazio kengarria..